

# **UDARREGI IKASTOLAKO 2014-2015 IKASTURTEKO INKLUSIO EGOERA DBH-N: ETORKIZUNERAKO PROGRAMA**

**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien  
Gradua- Gradu Amaierako Lana**

**Sarai Lizaso Mitxelena**

Irakasle arduraduna: Ruth Cayero Alcorta

Esku-hartze arloa: Eskolako Heziketa  
Fisikoa, bigarren hezkuntzan

Ikastetxea: Udarregi Ikastola (Usurbil)

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>MARKO TEORIKOA</b>	<b>5</b>
<b>HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK</b>	<b>6</b>
<b>INKLUSIBITATEA</b>	<b>8</b>
<b>LEGEDIA</b>	<b>10</b>
<b>HEZKUNTZA PREMIA BEREZIARI BURUZKO ARAUDIA EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN</b>	<b>10</b>
<b>USURBIL ETA UDARREGI IKASTOLAREN AZTERKETA</b>	<b>12</b>
USURBILEN AZTERKETA SOZIO-EKONOMIKOA	12
IKASTOLA	12
IKASTOLAKO INSTALAKUNTZAK	13
BALIABIDE DIDAKTIKOAK	15
GIZA BALIABIDEAK	15
AZTERKETA INSTITUZIONALA	17
ESKOLA MOTA	19
IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA	19
<b>BEHAKETA LANA</b>	<b>21</b>
<b>IRAKASLEA</b>	<b>22</b>
<b>PROGRAMAZIOA</b>	<b>22</b>
<b>ORDUTEGIA</b>	<b>23</b>
<b>PARTE HARTZAILEAK</b>	<b>23</b>
<b>ESKU HARTZEA, PROGRAMA PERTSONALIZATUAK</b>	<b>28</b>
<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>29</b>
<b>HELBURUAK</b>	<b>29</b>
<b>IRAKASLEAREN JARRERA</b>	<b>30</b>
<b>ESKU HARTZEA</b>	<b>32</b>
HEZKUNTZA JARRERA ETA BALIOETAN	32
IKASKETA KOOPERATIBOA ETA JARDUERA KOOPERATIBOAK	32
MAILA EZBERDINETAKO IRAKASKUNTZA	33
EGINBEHARREN ADAPTAZIOA	33
KONPETIZIO EGOERETAN KONPENTSAZIOA	35
<b>EBALUAZIOA</b>	<b>37</b>
<b>ONDORIOAK</b>	<b>39</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>40</b>



## SARRERA

Proiektu hau Udarregi Ikastolako inklusibitate mailaren ingurukoa da. Lanaren zergatia ulertzeko arazoaren muinera joan behar dugu, hau da, baztertzearena. Inklusio falta horretan batez ere, arazoak eta urritasunak dituzten pertsonak dira eragin handiena jasaten dutenak. Heziketa Fisikoan ere, sarritan gaitasun jakinak dituzten ikasleak baztertzera jotzen da, eta proiektu honekin hori ekiditea lortu nahi dugu aldaketa txiki batzuk eginaz.

Proiektuaren lehen pausua baztertuak dauden haurrak edota inkluituak ez daudenak identifikatzea da, eta horretarako behaketaren metodoa erabili dugu. Taula baten bidez ikasle bakoitzaren inklusio maila aztertu dugu, eta kaltetuenak suertatzen diren hurrei laguntzea erabaki dugu inklusiorako prozesu honetan. Haur hauek ez daude zeharo baztertuak, baina uste dugu beharrezkoa dela inklusio osoa ematea, ikasketa prozesu bateratua eta progresio egoki bat izan dezaten.

Ariketa moldagarriak planteatzen ditugu, klaseko ikasle guztien ezaugarrietara egokituta eta batez ere inkluituak ez dauden ikasle hauen ezaugarrietan fokaturik. Klase horretan ematen den bazterketatik abiatuta, berak jasotako bazterketa eta ez gaitasun maila moldatu dezakegu gero gizartean aplikatu ahal izateko. Interesgarria da, ikasle guztiei ohartaraztea, ariketa eta une jakin batzuetan edonor aurki daitekeela muga edota zailtasun baten aurrean, ez gaixotasun edo urritasuna dutenak bakarrik. Azken finean, batez ere heziketa fisikoan eta jarduera fisikoan trebea sentitzea integrazio eta sozializazio tresna bat da. Horregatik, arazoak dituzten ikasleentzako nolabaiteko moldaketak egiten badira saioaren barruan, hauen motrizitatearen garapena eta inklusioa bultzatuko dira.

Beraz, hasteko, behar bereziak dituzten hurrei buruzko informazioa emango dugu eta zer den lortu nahi dugun inklusioa azalduko dugu. Ondoren, behin lortu nahi duguna jakinik, ikasleen azterketarekin jarraituko dugu, horrela, egin beharreko aldaketak zein diren jakingo dugularik.

Azkenik, jasotako esperientzia ikusita, ikasle hauentzat programa pertsonalizatu txiki batzuk sortu ditugu. Hemen dituzten zailtasunak kontuan izanda, klaseetan egin beharreko aldaketak aipatzen ditugu.

Behaketa hau aurrera eramateko ikastolako langileen laguntza ezinbestekoa izan da, beren laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen behaketak behar bezalakoak izatea. Irakasleak prest egon dira une oro laguntza eskaintzeko eta beren saioetan behaketa lanak egiten uzteko. Gainera, beren atsedean uneetan ere nire dudak argitzeko prest agertu dira eta honek asko lagundu dit lanarekin jarraitzeko orduan.

# MARKO TEORIKOA

## HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

Programa hau aurkezteko arrazoi eta helburu nagusiak hezkuntza premia bereziak dituzten haurrak dira, hauen inguruan lan handia baitago egiteko oraindik. Haur hauek besteekin elkarlanean aritzea da gure helburua, beren autonomia landu eta hezkuntza egoki bat jaso dezaten. Gainera, beraiantzat ez ezik, beraien kideentzat ere oso aberasgarria dela elkarlan hau deritzogu, eta hau jakinik abiatu nahi dugu proiektua.

Lehenik eta behin, arazo hauek dituzten haurrak identifikatu nahi dira. Behin ikasle hauen arazoen ezaugarriak landuta daudenean, gainerako ikasleekin dituzten ezberdintasunak aztertuko dira eta pertsona hauek gizartean dituzten zailtasunak nabarmendu, gehiago landu ahal izateko.

Esperientziatik eta sentimenduetatik abiatuz, gogoeta sakon bat egin dugu. Klaseetan inkluituta ez dagoen pertsona baten bizitzaren inguruan aldatu beharreko eta mantendu beharreko gauzak aztertuz gorputz hezkuntzako klase bat egokitzea lortu nahi dugunez, bere zailtasunen arabera mugak gainditzen joango gara. Batzuk laguntza bidez besteak gabe.

Horretarako, esan bezala, baztertuak ikusten ditugun haurretan zentratuko gara, zehazki premia bereziak dituzten haurretan. Hauek duten zailtasuna zein den identifikatzen saiatuko gara, honen nondik norakoak aztertu, eta ezarri beharreko programa egokia bilatu. Heziketa premia berezietan ari garenean, esan nahi dugu:

Ikasle batek ikasteko zailtasunak baditu eta ohiko neurriak zailtasun hauei irtenbidea bilatzeko nahikoak ez badira, hezkuntza premia berezien multzoan kokatzen dugu, esku-hartze arruntak baino zerbait gehiago behar duten ikasleentzat.

HPBak aldi batekoak (esaterako, heltze prozesuan garatu dena edo bizitzaren gertakari batzuekin lotutakoa) edo iraunkorrak (ezintasun batekin loturikoa, adibidez, fisikoa) izan daitezke eta pertsona bakoitzak agertzen duen beharren eta ezaugarrien arabera taldekatu ditzakegu, hezkuntza zailtasun nagusiak kontuan hartuz:

- Irakurri eta idazteko zailtasunak dituzten ikasleak (IHN)
- Arretagabeziaren nahastea hiperaktibitatearekin (AGNH)
- Arrisku sozial egoeran egon daitezkeen ikasleak
- Desgaitasun fisiko edo sensorialak dituzten ikasleak
- Adimenarekin lotutako HPBak:
  - Adimen urritasuna

- Nahaste autista edo asperger sindromea
- gaintazioa

Premia bereziak dituzte haur hauek, eta diagnostiko zehatz baten ondorioz, hezkuntza sistematik laguntzen saiatu behar dugu. Ikasle hauen independentzia eta autonomia sustatu behar dugu jardura fisikoaren bitartez, gelan ikasitakoa munduan aplikatzen lagunduz. Gure kasuan, elkarlanean lan egiten erakutsiko diegu, eta hau oso garrantzitsua da haur hauentzat, beraiek agertzen dituzten zailtasunak, inguruneke ezaugarriek ere asko baldintzatzen baitituzte.

Gainera, ikasle hauek dituzten zailtasunak erlatiboak dira, hau da, une zehatz bakoitzean ikasle batek duen egoera zehatzari lotuta aztertu behar dugu.

Hezkuntza premia bereziak dituzten haurrak definitzerakoan eragina duten aldagaiak honakoak dira, programa egiterakoan kontuan hartu behar ditugularik:

- Ikaslea: izen abizenak jakin behar dira
- Irakaslea: bere jarrera oso garrantzitsua da, denaz enteratu behar da.
- Irakasteko/ ikasteko gaia: arlo konkretuetan izan daiteke. Baliteke nahiz eta beste arloetan ondo joan gurean arazoak izatea, edo alderantziz.
- Metodologia: testuak lantzen hasiko dira. Taldeak irakasleak egin behar ditu.
- Ingurunea: garrantzitsua premiak definitzeko. Ohiturak, baliabideak beharrezkoak dira erantzun ona emateko.
- Baliabideak: hauekin aurrera egin behar dugu.

Hau guztia jakinik, gida hau osatzeko ikasle hauek ulertzen hasi behar dugu. Ikasle bakar batzuek dituztela arazoak, behar bereziak eta beraz trataera berezia behar dutela pentsatzea ez da egokia, nolabait ikasleak beraien beharren errudun izango balira bezala tratatuko liratekeelako. Beste aldetik, kontuan izanik ikasle guztiek merezi dutela kalitatezko hezkuntza, HPBak dituzten haurrak egokitzeko arazoak edukiko dituztenez, eskolak egokitzapenak egin beharko direla ulertzen badu, etiketajearen hankasartzean erori gaitzke. Hau da, egokitzapenak HPBak dituzten ikasleetan zentratzean hauekiko espektatibak jaitsi daitezke, eta aldi berean beste ikasleek ere behar duten arreta desbideratu daiteke.

Nire ustez, argi eduki behar da klase batean aniztasuna egongo dela eta, batzuk soilik ez, denok garelako ezberdinak. Hau kontuan izanik, aniztasunetik aberasteko, ikasle guztiek

beharko dituzte beraien beharretara egokitutako eskuhartzeak, pertsonalizatuak, nahiz eta batzuk ohikoagoak izan beste batzuk baino.

Laburbilduz, lortu nahi dena HPBak dituzten haurren inklusioa da gure saioretan.

## INKLUSIBITATEA


Gaur egungo gizarte globalizatu honetan dagoen arazo larrietako bat da bazterketarena. Gaur egun, inklusio soziala eta hezkuntzako bizimodu bezala definitu dira. Inklusioa, gizartean parte hartu eta jokatzeko estilo bat da, pertsona bakoitza ulertu eta kontsideratzean oinarritzen dena (Booth, Ainscow eta Black-Hawkins, 2000).

Askotan ematen den fenomeno baztertearena izaten da eta bazterte horretan batez ere, arazoak eta urritasunak dituzten pertsonak dira eragin handiena jasaten dutenak (Booth, Ainscow eta Black-Hawkins, 2000).

Inklusioa, esparru guztietan aplikatu dezakegu, esaterako: eguneroko bizitzan, gorputz hezkuntzan, jarduera fisikoan, jolas eta kirolean edozein mailan, lan arloan, espresioan, gizarte-komunikazioan...

Aipatu bezala, Heziketa Fisikoan ere gaitasun jakinak dituzten ikasleak baztertzera jotzen da askotan, eta hori ekiditea lortu nahi dugu. Irakasleak edota soin hezkuntzako arduradunak, egoera horien aurrean nola jokatu eta nola ekidin behar dituen jakin behar du. Erabilitako metodologiari esker lor dezake hori.

Jarduera fisiko inklusiboa guztiontzat den kalitatezko jarduera fisikoa da, hau da, inork inor baztertzeko ez duena. Eta jarduera fisiko maila honetan, ikasle guztiak beharrezkoak dira eta bakoitzaren ezberdintasunak kontutan edukitzen dira, honek jarduera fisikoa aberasten baitu.



Jarduera fisiko inklusiboaren helburu nagusiak honakoak dira:

- **Berezko inklusio fisikoa** (espazio batean):



Inklusioa bakoitzaren eskubideen artean dago eta eskola/kirol taldea/institutua eskubide horiek onartzera behartuta dago. Gainera, talde hau moldatu egin behar da eskubide horien arrakasta bermatzeko.

- **Guztionezko gorpuz eta kirol hezkuntza:**

Inklusioaren beharrezkoak diren ezaugarriak, kalitatezko hezkuntza eta diskriminaziorik eza dira. Hau bermatzearen erantzukizuna jarduera fisikoa eskaintzen duenaren esku dago, bere lana guztion beharrei erantzuna ematea baita. Ikasle guztientzat helburua berdina da eskolan sartzeko orduan, jorratu beharreko gaiak berdinak direlarik, baina ikasle bakoitzaren beharretara egokitu behar du irakasleak (Ferguson eta Jeanchild, 1999)

- **Parte hartzea inklusio bezala**

Hau da, edonork sufritzen dituen oztopoak murriztu eta ikaskuntza eta partizipazioa bultzatzea. Honela, jarduera fisiko inklusiboa eskaintzen duenaren betebeharra, aproposak diren jarduerak bilatzea eta jarduera horiek guztiak aztertzea da.

- **Gizarte inklusioa**

Egunerokotasunean erabiltzen diren praktikak aztertuz gero, gure ikasleen erantzunak oso ezberdinak direla konturatzen gara. Ariketa baten aurrean ikasle bakoitzak era batera interpretatzen baitu zeregina, irakasleak espero ez arren (Gomendio, 2007).

Azken urteetan egin diren ikerketek diote (Porter, 2003; Díez eta Latas, 2006; Gomendio, 2007), ikasle bakoitzaren beharrei erantzutea ezinbestekoa dela bakoitzaren heziketa integrala lortzeko. Ikasle bakoitzaren izaera, ohitura eta jokabideak ezberdinak direla une oro gogoan izatea garrantzitsua izateaz gain, ariketak eta saioak antolatzerakoan oinarritzko bihurtu behar dira. Beraz, heziketa inklusiboak, eskolako irakasle eta material didaktikoaren egokitzapenez gain, adaptazio kurrikular indibidualizatua ere ekarri du (Gomendio, 2007).

Lan honetan, inkluituak ikusten ez ditugun ikasleen ezaugarriak identifikatu, jaso eta aztertu ostean, beren beharretara egokien egokitu daitekeen soin hezkuntzako jarduera fisikoko programa bat diseinatu da. Pertsona hauek eguneroko bizitzan baztertuta sentitzetik denekin batera une on eta dibertigarria pasatzea ere badu helburu.

Horregatik, beraiantzat eta ingurukoentzat Heziketa Fisiko klase inklusibo bat planteatu da, eguneroko bizitzan aurki ditzaketen bazterketa momentuak murriztu eta bere parte hartze totala bilatuz.

Ariketa moldagarriak planteatzen dira, klaseko ikasle guztien ezaugarrietara egokituta eta batez ere inkluituak ez daudenen ezaugarrietan fokatuz. Ikasle hauek integratu behar dira klaseetako programazioan enpatia erabiliz. Klase horretan ematen den bazterketatik abiatuta, berak jasotako bazterketa eta ez gaitasun maila moldatu behar da gero gizartean aplikatu ahal izateko. Interesgarria da, ikasle guztiei ohartaraztea, ariketa eta une jakin batzuetan edonor aurki daitekeela muga edota zailtasun baten aurrean, ez orain arte aparte ikusten genuena bakarrik, bere gaixotasun edo urritasuna direlarik batzuetan horren arduradun.

Horrela, jarduera fisiko inklusibora hurbilketa bat planteatzen dugu, ikasle guztiak taldearen parte izatea lortzeko. Horretarako, argi dago, Gorputz Heziketako irakasleak, gainerako irakasleekin batera egin behar duela lan, ikasle hauen inklusioa erabatekoa izan dadin.

Azken finean, batez ere heziketa fisikoan eta jarduera fisikoan trebea sentitzea integrazio eta sozializazio tresna bat da. Horregatik, arazoak dituzten ikasleentzako nolabaiteko moldaketak egiten badira saioaren barruan, hauen motrizitatearen garapena eta integrazioa bultzatuko dira.

## **LEGEDIA**

### **Hezkuntza premia bereziari buruzko araudia Euskal Autonomi Erkidegoan**

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko araudia Euskal Autonomi Erkidegoan

- 118/1998 Dekretua ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzaileen esparruan antolatzen duena AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrezan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko

- Agindua, 1998ko uztailearen 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura (1998-12-22ko Aginduarengatik **partzialki aldatuta**)
- Agindua, 1998ko uztailearen 30koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat
- Erabakia, 1998ko uztailearen 24koa, Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena

## **USURBIL ETA UDARREGI IKASTOLAREN AZTERKETA**

### **USURBILEN AZTERKETA SOZIO-EKONOMIKOA**

Usurbil bi mendiren babesean, Andatza eta Mendizorroztz-Bordatxo, sorturiko herri bat da, Oria ibaiaren erriberan lur emankorrek dituelarik. 5.600 biztanle inguru dituen herri honek bere bizitza eta izaera garatzeko ahaleginak egiten ditu, inguruko herri handien influentziak kutsatzea saihesten duelarik.

Bertako jendeak industrian, batez ere, eta nekazaritzan lan egiten du. Industrialde ugariak ditu herriak, bertara etorkin asko etorri zirelarik industriak martxa hartu zuenean. Gainera, landa eta zelai emankorrek ditu herriak, izan ere terreno asko ditu inguruetan.

Euskal hiztun kopurua deigarria gerta liteke bisitariarentzat, inguruan Donostia eta Lasarte bezalako hirigune handiak izanda, %80-ra iristen baita euskaraz hitz egiten dakitenen portzentajea. Hain zuzen, euskal tradizioetan eta kulturaren oso errotuta dagoen herria dugu Usurbil. Urtean zehar hainbat eta hainbat agerkari eta ospakizun antolatzen dira, gure kultura eta hizkuntza suspertu eta landu nahian.

Aipatu bezala, etorkin ugari etorri ziren Espainiako lurralde ezberdinetatik industriak indarra hartu zuenean, baina gaur egun ere geroz eta etorkin gehiago ikus ditzakegu kalean. Gaur egun, Hegoamerikatik etorritakoak nagusitzen dira, baina, lurralde ezberdinetako jendea ikus daiteke.

### **IKASTOLA**

Usurbilgo ikastola, hiru eraikinez osatua dago, eta herrian zehar sakabanaturik daude hauek. Haur eskola, Kalezahar auzoan kokaturik dago, eta beste bi eraikinak, hau da, ageri alde eraikina eta ikastola berria kaskoan. Eraikin nagusiak eta ageri alde eraikinak, kiroldegia eta osasun zentroa gertu dituzte. Espazio irekia da: hiru eraikinek patio zabalak dituzte eta zelai berdeak dituzte inguruan. Gainera, kiroldegia ondoan egoteak asko laguntzen du.

Esan bezala, Ikastolari itsatsita Usurbilgo Udal kiroldegia aurkitzen da. Hori dela eta, bertan burutzen dira heziketa fisikoko saioak, beharrezko material eta instalakuntza guztiak baitaude bertan. Hala ere, pilotako unitate didaktikoa 5 minutura aurkitzen den udal pilotalekuan gauzatzen da. Eta, natur jarduerak praktikatzeko (orienting, bizikleta irteerak, arrauna) ikastolatik atera behar izaten da.

## IKASTOLAKO INSTALAKUNTZAK

Hiru eraikinek osatzen dute ikastola lehen aipatu dugun modulan, eta ageri Aldeko eraikuntza bi satinan bañasen da, eraikinari zati berri bat itz atsi baitiote. Honela banaturik daude eraikinak.

### HAUR ESKOLA - KALE ZAHARREN

<b>Atarian</b>	0-1 adineko 3 gela eta jolaslekua
<b>Beheko solairuan</b>	Jangela/Psikomotrizitate gela
<b>1. solairuan</b>	Sukaldea, biltegia, bulegoa (idazkaritza) eta 1-2 adineko gela bat.
<b>2. solairuan</b>	2-3 adineko 2 gela eta 1-2 adineko 2 gela.

### ERAIKIN BERRIA

<b>Atarian</b>	Haur Hezkuntza: 3, 4 eta 5 urtekoen gelak. Ingleseko gela. Laguntza gela.
----------------	--

### AGERI ALDE ERAIKUNTZA

<b>Beheko solairuan</b>	Musika, zaintza eta liburutegia gelak.
<b>1. solairuan</b>	Laborategia, ingelera eta plastika gelak.
<b>2. solairuan</b>	Lehen Hezkuntzaren 1,2,3 eta 4. mailak.
<b>3. solairuan</b>	Lehen Hezkuntzaren 4,5 Eta 6. mailak. LH bilera gela gela, tutoretza, ingelera eta informatika gelak.

### BEHEKO IKASTOLA

<b>Sotoan</b>	Plastika gela.
<b>1. solairuan</b>	Idazkaritza, Zuzendaritza Laborategia, Teknologia eta Bideo gela. Artxibategia. Laguntza gela. Gorputz hezkuntzako departamendu gela. D.B.H. 1 eta 2. mailak.

## 2. solairuan

D.B.H. 3 eta 4. mailak.

Irakasle gela, Informatika, Liburutegia.

Musika gela.

Ikus-entzunezkoen gela, Tutoretzak.

Ikastolako instalakuntzei dagokienez, bere kanpoalde osoan ikasle guztiek erabiltzeko moduko patio ederrak aurkitzen dira. Patio hauek jolas orduetan erabiltzen dira, soin hezkuntzako saio gutiak kiroldegian burutzen baitira. Gainera, bertan ez dago arriskurik, garraio bideek ezin baitute bertara sartu.

Baina, ikastolan bertan badago psikomotrizitate gela eder bat, eta LH eta HHko ikasleak sarri jarduten dute bertan euren motrizitatea hobetze lanetan.

Lehen esan bezala, soin hezkuntzako saioak kiroldegian burutzen dira. LH 1.mailatik DBH 4.mailara bitarteko gela guztiak burutzen dituzte bertan euren praktikak. Ia saio guztiak bertako kantxan burutzen dira, eta talde bat baino gehiagok ordu berdinean topo egitean, helduenek 2/3 eta gazteenek 1/3 hartzen dute. Baliabide materialen aldetik ez da arazorik izaten, denetik aurkitu baitezakegu bertan:

- Saskibaloiko 2 kantxa
- Areta futboleko kantxa
- Rokodromoa
- 25 metroko igerilekua
- Futbol zelaia

## BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Ez dago arazorik heziketa fisikoko materialarekin. Mota guztietako baloiak badaude: saskibaloikoak, eskubaloikoak, futbolekoa, boleibolekoak, medizinalak, errugbikoak, goma espumazkoak eta plastikozkoak. Pilota faltarik ere ez dago, teniseko, badmintoneko eta eskuzko dezente baitaude. 30 uztai inguru ere badaude. Baita, bateak, badmintoneko erraketak, plastikozko zestak, zapiak, palak eta boleiko sarea ere. Eta noski, saioak ongi antolatzeko beharrezkoak diren kono, txino, soka, peto eta pika nahikoa ere badago bertan. Gainera, urtero material berriketa bat egiten da, eta gauza berriak eta ikasleen etiketa egokirako beharrezkoak diren materialak ekartzen dira.

Gainera, saioak kiroldegian burutzen direnez, bertako tatami gelako koltxonetak ere erabiltzeko aukera badago.

Material hau kudeatzeko kiroldegian material gela bat daukagu, eta material gehiena bertan, modu egoki batean gordetzen da. Hala ere, ikastolan bertan bi gela ditugu materiala gorde ahal izateko.

Gainera Unai klaseak prestatzerako orduan, honako baliabide didaktikoak erabiltzen ditu:

- Gorputz Hezkuntzako material didaktikoa "ESO-BACHILERATO"ari dagokiona. (INDE editoriala).
- Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak argitaratutako material didaktikoa.
- Unibertsitateko apunte pertsonalak.
- Bateria Eurofit (SHEE-k argitaratua 1998.urtean)
- Ikaspilotak argitaratutako material didaktikoa (liburuak, fitxa didaktikoak eta bideoak ) (Ikastolen Elkarteak argitaratua).
- Lasarteko PAT-etik jasotako material didaktikoa (liburuak, zintak eta bideo zintak)
- Gorputz Hezkuntzari buruzko aldizkariak:
  - La Revistilla de Educación Física y deporte-Píla Teleña)
  - Revista de Educación Física. Edit. Boidecanto-Taller de publicaciones.
  - ...

## GIZA BALIABIDEAK

Heziketa fisikoa DBH guztian zehar, Unai Lataillade irakasleak ematen du. LHn, kirol magisteritza ikasi duten bi irakasleren artean banatuta dituzte saioak edo taldeak.

Hiru irakasleren artean, soin hezkuntzako mintegia osatzen dute. Horren ondorioz, ikastolako ibilbide osoan zehar progresioan garatutako saioen kohesioa lortzea izaten da helburu nagusia.

Ikastolako eskola kiroleko kirol koordinatzailearekin ere hauek badute harremana. Horrela, eskola kirolean jorratzen ari diren kirolen berri dute irakasleek, eta informazio gehiago dute beren kirol bizitzari buruz.

Eskola kiroleko koordinatzailea, egunero egoten da eskola kirola koordinatzen. Kiroldegian burutzen dira entrenamendu gehienak, eta ondorioz, egunero egoten da entrenatzaileekin kontaktuan. Gainera, asteburuetan, partidu guztiak ikustera joateko aukerarik ez duenez, talde bakoitzeko bi haurren gurasoek joan behar izaten dute zaintza lanak egitera. Hauek nortzuk izango diren adierazten duen egutegia banatzen zaie haur guztiei ikasturte hasieran.

Unai erabiltzen duen metodologia honakoa da:

1. Kontutan eduki behar dugu ziklo honetan ikasleak motibatzea zailagoa dela. Ikasleak bere gaitasunak noraino iristen diren erakutsi nahi izaten du, bide honetan gainditu ez dezakeen oztopo bat aurkitzen badu desmotibatu egingo da, beraz, irakasleak planteatzen dituen ekintzak progresio maila ezberdinak izango ditu eta gainditzeko modukoak, era honetan motibazioa mantenduko dugu.
2. Lantzen diren edukiak, beste arlotako gaiekin lotu behar dira, ahal den neurrian, honela kultura fisikoa suspertuz eta era berean gaitasun batzuk landuz: hausnarketa, balorazioa, iritzi-aportazioa eta erabakiak hartzea.
3. Hasierako ebaluaketa bat egin beharko da jakiteko ikasleen egoera zein den, ondoren ekintzaprogresiboak planteatzeko.
4. Proposatzen diren ekintzak, ikasle guztiak egiteko modukoak izango dira, gero maila ezberdinetan sailkatuz.
5. Adin hauetan aniztasuna areagotu egiten da, interes eta motibazio desberdinak sortuz. Hau dela eta planteatzen diren aktibitateetan integrazioa landuko da, ahalegin guztiak eginez, ea baztertze arazoak sortzen ez diren.
6. Ikasleen interesei ere kasu egin beharko diegu, ekintza alternatiboak ere sortuz, hauen proposamenak kontutan izanez.



7. Gaur egungo gizartean egiten diren ekintza fisikoekin lotura dituen ekintzak planteatu behar dira. Honela bere gaitasun motoreak lantzeko aukera izango baitu, D.B.H. bukatu ondoren.
8. Informazioa eskeini behar zaie, horretarako zenbait errekurtso didaktikoak eskainiz, adibidez, bideoa, hitzaldiak,... Irakasleak "modelo ejekutorearen" papera galtzen joan behar du.
9. Joko eta kirolen helburua ez da irabaztea bakarrik, beste zenbait helburu zaindu behar ditugu: ondo pasatzea, fisikoki hobeto sentitzea, beste ikaslekiko harremanak sendotzea,...
10. Kontzeptu eta baloreak, prozedurazko jarrerekin lotuta joan behar dute; ohiturak sortu behar dira. Ekintzak egiterakoan, hauen hausnarketa ere egin behar da.
11. Zenbait aktibitate egiteko ikasleak sortuko dute materialea.
12. Ikasketa prozesuan pauso hauek jarraituko dituzte:
  - esperimentazioa
  - automatizazioa/dominioa
  - hobeagotze prozesua

## AZTERKETA INSTITUZIONALA

Usurbilgo Ikastolaren kudeaketa eredua partaidetzakoa da. Kudeaketa horren eraginkortasuna guraso, irakasle, langile ez irakasle eta ikasleek bermatzen dute.

Ikastola denok osatzen dugunez, dauden eta eman daitezkeen gestio-organo kolektiboak **BERDINTASUNEZ** osatuko dira.

3.1. Dena den, eta lan-taldeak eraginkorragoak izan daitezen, ez da beharrezkoa izango, talde guztietan, ikastola osatzen duten partaide guztien presentzia: guraso, irakasle, ikasle, pertsonal ez-irakasle, bazkide laguntzaile, herriko Administrazioaren ordezkari, eta abar. Partaidetza, gestio-organoen izaera eta lan-motaren arabera antolatuko da.

3.2. Halaber, ikasleen partaidetza-eskubidea ziurtatuko da adina eta gaien arabera.

3.3. Ikastolak, "Euskal Eskolaren Diseinuan" baieztatu genuen bezala, Udarregi ikastola, IKERen **BATZAR OROKORRA** izango du ikastegiko organo erabakitzaile gorena eta bere

funtsezko izaera ezarriko duena. ARTEZKARITZA KONTSEILUA izango da Batzar Orokorreko organo ordezkatzailer eta funtzionala, eragilea.

### **Ikastolaren funtzionamendu egitura:**

Zuzendaritza taldea eta Irakasleen klaustroa dira ikastolaren funtzionamendu egitura nagusiak.

Zuzendaritza taldea zuzendariak, etapetako koordinatzaileak eta administratzaileak osatzen dute. Zuzendaria arduratzen da ikastola osoaren funtzionamendu egokiaz. Bere esku egoten da gobernu-organo eta funtzionamendu-egituraren arteko lotura. Gainera, berak izendatzen ditu etapetako koordinatzaileak zeintzuk izango diren.

Etapetako koordinatzaileen kasuan, dagokien etapetako pedagogia-alorraren funtzionamenduaz eta bere etaparen eta gainerako arteko koordinazioaz arduratu behar dira. Hori posible izateko, gainerako koordinatzaileekin bilduko da noizean behin (zenbatero bildu behar duten ez dago zehaztuta). Etapetako koordinatzaileak besteen berri izateko astean behin etapetako irakasle guztiak bilduko dira, koordinatzaileak gidatutako bilera batean; bilera honi esker, elkarren etengabeko berri izango dute irakasle guztien artean. Astero bileran biltzen diren arren, etapetako irakasle guztiak, ikasturte bakoitzeko gela bat baino gehiago daudenetako tutoreak etengabeko jarraipen bat egiten diote elkarri, honela, bi geletako erritmoa pareko mantenduz.

Beste makina bat eginkizun ere baditu koordinatzaileak, hala nola tutoreak finkatzea.

Pedagogia taldea alor pedagogikoaren funtzionamenduaz arduratzen den organo kolegiatua da eta zuzendariak eta etapetako koordinatzaileez osatuta egoten da.

Irakasleen klaustroa, ikastolako irakasle eta ikasleen heziketan zuzenean parte-hartzen duten guztiak elkartzen dituen organoa da. Honi dagokio Ikastetxearen Curriculum Proiektua egitea

## ESKOLA MOTA

Kooperatiba elkarteak da ikastetxea, guraso kooperatiba hain zuzen ere. Ikastolako estatutu sozialek eta Euskadiko Kooperatiba Legeak eragin diezaioketen legezko aginduen arabera arautzen da. Ikastetxearen izena UDARREGI IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA da 2000. urteaz geroztik.

Ikastetxearen finantzaketa ehunekorik handiena (% 80) Hezkuntza Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalaren laguntzen eskutik dator. Gainerakoa (% 20), gurasoek – kuoten bidez– ordaintzen dute.

2-16 urte bitarteko haur eta gazteen garapen osoa lortzean murgiltzen da ikastola. Ikastola honen heziketa-lanak euskara du oinarri. Hizkuntza hori bizitzen, garatzen eta hedatzen saiatuko da Udarregi Ikastola, D ereduan bakarrik eskaintzen baititu ikasketak.

## IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA

### **Irakasleen arteko lan egiteko era:**

Arlo bereko irakasleak zer eta nola eman erabakitzeke elkartzen dira astero, eta baita, materia hori zein erritmotan emateko ere.

Bi zikloetako (DBH 1 eta DBH 2; DBH 3 eta DBH 4) irakaskuntza sinkronizatu edo lotzeko, eta ebaluazio irizpide eta metodologia mota zehaztu eta horien inguruko zehaztapenak egiteko, mintegiak sortzen dira. Horien artean aipa ditzakegu hizkuntza, zientzia, gorputz hezkuntza, teknologia, ... mintegiak.

### **Hizkuntza giroa:**

Ikastolan bizi den hizkuntza giroa oso euskalduna da. Irakasle artean beti euskara entzuten da, ikasle artean ere bai. Hala ere, DBHn bada etorkinik, eta horien artean gaztelaniak euskarak baino indar handiagoa du.

Oharrak zein hizkuntzetan jaso familiak aukeratzen du. Elebidun edo euskara aukerak daude.

### **Gurasoen inplikazioa:**

Gurasoak dira seme-alaben lehen eta legezko hezitzaileak eta irakasleekin batera, bakoitza bere eginkizun propioetan, ikaslearen nortasuna osatzeko lagunduko dioten giro egokia lortu behar dute.

Ikaslea, gizarteko talde desberdinetan partaide izaten, sentiarazten, ahaleginduko dira: familia, gela, lagun-talde eta herriko partaide izaten. Bestalde, ikasle batek beti aurkitu beharko luke bere adierazpenak egiteko konfiantzazko giroa guraso eta irakasleen artean.

Guraso eta irakasleen harremanak heziketa-arazoetan irekiak eta orekatuak izango dira, elkar oztopatu gabe eta leialak eta egiazaleak, haurraren heziketa baitago jokoan. Beraz, arrazoiketa eta elkarrizketa izango dira harremanen oinarri eta ez nagusikeriak.

Guraso eta irakasleek, seme-alaben heziketari dagozkion erabakiak hartzerakoan, hauen asmoak eta iritziak hartuko dituzte kontuan, heldutasunaren arabera.

### **Ikasleen antolakuntza:**

Ikasleak dira beren buruaren garapen eta heldutasunaren protagonistak. Horregatik, ardura hauek hartu beharko dituzte:

- Agintzen zaizkien eskolako eta eskolatik kanpoko lanak egitea; Ikastolan dauden denbora ahalik eta ondoena aprobetxatzea.
- Ikaste jardueretara erregular eta puntualki joatea.
- Trebakuntza jardueretan eta akademikoetan laguntzea horretaz arduratzen direnei.
- Ikastola eta haren instalazioak eta materialak errespetatzea, ikasleen trebakuntzarako baitaude.
- Behar den duintasun, ordena eta garbitasunarekin jardutea.

Baina, ikasleen ardura ez da banakakoa soilik, Hezkuntza Komunitatearen azpitalde bat osatzen baitute. Beren ordezkariak hautatu behar dituzte. Hauek, kontsulta eta eztabaidetan, irakasle, tutore edo zikloko koordinatzaileari helarazi behar dizkie berak ordezkatzeko dituen kideengatik jasotako iradokizun eta eskaerak.

## **BEHAKETA LANA**

## IRAKASLEA

Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan lizentziatuta dago Madrilen Unai Latallade. Urte asko daramatza irakasle lanetan, dagoeneko esperientzia handia du. Prestatzaile fisiko lanean ere ibili izan da, baina, egun irakasle lanari eskaintzen dizkio ordu gehienak, nahiz eta erreala futbol taldean lan egiten duen arratsaldez.

Futbolaren munduari oso lotuta egon arren, ikasleei ahalik eta kirol aukera zabalena eskaintzea eta ikasleak ikastolatik at kirola egitera bultzatzea izaten da bere helburu nagusia.

DBHko ziklo osoan zehar heziketa fisikoak nolabaiteko progresio bat jarraitzen du.

## PROGRAMAZIOA

	<b>1. ebaluazioa</b>	<b>2. ebaluazioa</b>	<b>3. ebaluazioa</b>
<b>DBH1</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gaitasun fisikoak baloratzen.</li><li>- Beroketa unitate didaktikoa.</li><li>- Gaitasun fisikoen unitate didaktikoa</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Joko Tradizionalen unitate didaktikoa.</li><li>-Dramatizazioa unitate didaktikoa.</li><li>-Badmintona unitate didaktikoa.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Euskal Dantzak.</li><li>- Oreka-jolasak unitate didaktikoa.</li><li>- Softball unitate didaktikoa.</li></ul>
<b>DBH2</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gaitasun fisikoak baloratzen.</li><li>- Atletismoa unitate didaktikoa.</li><li>- Kirol gimnasia eta oinarrizko gimnasia</li><li>- Arnasketa eta erlajazioa unitate didaktikoa</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Dramatizazioa unitate didaktikoa.</li><li>-Talde kirolak unitate didaktikoa.</li><li>- Euskal Pilotaren joko zuzenak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Euskal Dantzak.</li><li>- Jolas alternatiboak unitate didaktikoa.</li><li>- Ping-pong unitate didaktikoa.</li></ul>
<b>DBH3</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gaitasun fisikoak baloratzen.</li><li>- Gaitasun fisikoen unitate didaktikoa</li><li>- Akrosport unitate didaktikoa</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Dramatizazioa unitate didaktikoa.</li><li>- Boleibola unitate didaktikoa.</li><li>- Stick jolasak unitate didaktikoa.</li><li>- Natur ekintzak eta aisialdia.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Herri Kirolak: soka-tira eta lokots bilketa.</li><li>- Euskal Pilotaren (pala) unitate didaktikoa.</li><li>- Mendiko bizikleta unitate didaktikoa.</li></ul>
<b>DBH4</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gaitasun fisikoak baloratzen.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Errugbia unitate didaktikoa</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Bizi eta adierazi unitate didaktikoa.</li></ul>

- Parcour unitate didaktikoa. - Yoga unitate didaktikoa	- Jolas kooperatiboak unitate didaktikoa. - Borroka jolasak unitate didaktikoa - Badmintona unitate didaktikoa	- Txapelketak antolatuz unitate didaktikoak. - Jolasak asmatuz. unitate didaktikoa. - Euskal Dantzak.
--	--	---

## ORDUTEGIA

ORDUTEGIA					
ORDUAK	ASTEL	ASTEART	AZTEAZ	OSTEG	OSTIR
8:25	DBH2B		DBH2A		
9:20			DBH4B		
10:15					
10:40	DBH2A		DBH1A		TUTORETZA 1B
11:35	DBH3B		DBH4A		
12:30					
14:30	DBH4B		DBH1B	DBH3A	DBH3A
15:30	DBH4A		DBH2B		DBH3B

## PARTE HARTZAILEAK

Gure programan, Udarregi Ikastolako DBHko talde guztiek hartuko dute parte, baina ikasle zehatz batzuen inklusioa lortzea izango da helburua.

Hasiera batean ikastolako inklusio maila nolakoa den jakin behar dugu. Horretarako hasierako behaketa bat beharrezkoa da. Behaketa honen bidez, inklusio maila nolakoa den jakiteaz gain, eksklusio maila eta integrazio maila ere behatu nahi da, haur hauek programaren bitartez inklusioan murgiltzeko.

Hau aztertu ahal izateko hainbat prozedura erabil ditzakegu, baina guk honako hau aukeratu dugu (Fernandez, M etal; 2012), behaketa bidez taula honetan agertzen diren kategorietan ikasleak banatuz:

BEHAKETA SISTEMATIKOA GAUZATZEKO KATEGORIA SISTEMA		
makrokriterioak	kriterioak	OBSERBAZIO KODEAK
<b>INKLUSIOA</b> behar/arduera fisiko inklusioa guztiontzat den kalitatezko jardueren fisiko da. Hau da, inork baztertzeko parteez duena	Inklusio osoa	42. LEKM=Laguntza eta espazioaren, komunikazio motorren eta materialaren modifikazioa 41. LKMM=Laguntza eta komunikazio motorren, motortasunaren eta materialaren modifikazioa 40. LEMM=laguntza eta espazioaren, motortasuna eta materialaren modifikazioa 39. LEKMo=laguntza eta espazioaren, komunikazio motorra eta materialaren modifikazioa. 38.LEKMo=laguntza eta espazioaren, komunikazio motorren eta motrizidadearen modifikazioa 37.LMoEm=laguntza eta motrizidadearen eta errekurto materialen modifikazioa 36.LKEm=laguntza eta komunikazio motorren eta errekurto materialen modifikazioa 35.LKM=laguntza eta komunikazio motorren eta motrizidadearen modifikazioa 34.LEM=laguntza eta espazioaren eta materialen modifikazioa 33.LEMo=laguntza eta espazioaren eta motrizidadearen modifikazioa 32.LEK=laguntza eta espazioaren eta komunikazio motorren modifikazioa 31.LM=laguntza eta materialaren modifikazioa 30.LMo=laguntza eta motrizidadearen modifikazioa 29.LK=laguntza eta komunikazio motorren modifikazioa 28.LE=laguntza eta espazioaren modifikazioa 27.LAGUNTZA=interbentzioan ahozko laguntza, fisiko, kinestesiko-ukimenezkoa eskaintzen da irakaslearen eta gainerako ikasleen partetik
	Motrizidadearen antolakuntza eta jardueraren ingunarekin ematen den inklusioa	26.mEKMoM=modifikatzen da: espazioa, komunikazio motorra, motrizidadea eta materiala 25.mKMoM=modifikatzen da: komunikazio motorra, motrizidadea eta materiala 24.iEMoM=interbentzioa:espazioa, motrizidadea eta materiala 23.iEKMo=interbentzioa: espazioa, komunikazio motorra eta materiala 22.iEKMo=interbentzioa: espazioa, komunikazio motorra eta motrizidadea 21.iMoM=interbentzioa: motrizidadea eta materiala 20.iKM=interbentzioa: komunikazio motorra eta materiala 19.iKMo=interbentzioa: komunikazio motorra eta motrizidadea 18.iEEm=interbentzioa: espazioa eta jardueraren errekurto materialak 17.iEmo=interbentzioa: espazioa eta jardueraren motrizidadea 16.iEK=interbentzioa: espazioa eta jardueraren komunikazio motorra 15.iEm=interbentzioa: jardueraren errekurto materialen modifikazioan 14.iMo=interbentzioa: jardueraren motrizidadearen modifikazioan 13.iK=interbentzioa: jardueraren komunikazio motorren modifikazioan 12.iE=interbentzioa: jardueraren espazioaren modifikazioan 11.ALDAK=behar bereziak dituzten haurrak jardueran aktiboki parte hartzea sustatuz, azalpenean ematen diren zehaztasunak jarraituz.
<b>INTEGRAZIOA</b> Irakaskuntzaren garapenean behar bereziak dituen haurren parteez duena	Integrazio sozializatzailea	10.ISO3=behar bereziak dituzten haurrek taldean parte hartuz; rol pasibo bat erabiliz hartzen dute parte hauek 9.ISO2=behar bereziak dituzten haurrek taldean parte hartuz; irakasleak konsigna gidatu batzuk ematen ditu behar bereziak dituztenek parte hartu ahal izateko 8.ISO1=behar bereziak dituzten haurrek taldean parte hartuz; behar bereziak dituzten haurrak kondizionatzen dituzten konsigna batzuk ematen ditu irakasleak
	Integrazio faltsua	7.INF2=behar bereziak dituzten haurrak parte hartuz, irakasleak rol pasibo batean ezartzen du haur hau jardueran 6.INF1=behar bereziak dituen haurrak parte hartzen du, baina irakasleak ez du jolasa moldatzen eta konsignarik ematen, beraz, gehienetan rol pasibo bat hartzen du jardueraren barnean
<b>BEREIZKETA</b> Ez da irakaskuntzaren garapenean behar bereziak dituen	Parte hartze segregatzailea	5.PHS2=irakasleak behar bereziak dituzten haurrak segregatzen ditu, jarduera alternatiboak proposatuz bakarka edo taldean 4.PHS1=irakasleak behar bereziak dituzten haurrak segregatzen ditu, bere motortasuna landu gabe, proposatutako jarduerak ez baitiote horretan laguntzen



	Exklusio segregatzailea	3.ESE3=behar bereziak dituen haurra bereiztua dago edo bereizi egiten da, eta irakasleak berarekin interakzio bat egiten du ikaslea taldean sartzeko 2.ESE2=behar bereziak dituen haurra bereiztua dago edo bereizi egiten da, irakasleak berarekin interakzionatzen du baina ez du lortzen taldean sartzea 1.ESE1=behar bereziak dituen haurra bereiztua dago edo bereizi egiten da eta irakasleak ez du berarekin interakzionatzen
--	-------------------------	--

Taula honen bitartez, arazo larrienak edo eskusio egoera jasateko arriskua duten haurrak antzeman ditugu. Zortzi haur detektatu ditugu DBH osoan, baina 4 dira arazo larrienak dituztenak.

Kasuak, ikastolako koordinatzailearekin eta Heziketa Fisikoko irakaslearekin komentatu ditut, eta koordinatzailearen esanetan, kasu hauek identifikatuta eta sailkatuta dituzte.

Heziketa premia bereziak dituzten haurrak bi programa ezberdinetan banatzen dira Udarregi Ikastolan:

Mapakoak eta HBSP-koak (Hezkuntza Berariaz Sendotze Programa).

Lehendabizi, mapakoak aztertuko ditugu, kasu larrienak direlarik. Berritzeguneak zuzentzen ditu ikastolarekin kolaborazioan kasu hauek, esan bezala, arazo larrienak dituztenak direlarik, eta ikastolan lau kasu ditugu gaur egun.

Kasu hauek arazo sendoak dituzte, eta DBHko klaseak jarraitzeko arazoak izaten dituzte normalean. Haur hauek ikastola bukatzeko arazoak dituzte, baina lan asko eginda, lor dezakete.

Ikastolan, heziketa premia bereziak dituzten haurrak bi programatan sailkatzen dituzte, Mapakoak eta HBSP-koak (Hezkuntza Berariaz Sendotze Programa).

Mapakoak kasu larrienak izaten dira. Berritzeguneak zuzentzen ditu ikastolarekin kolaborazioan kasu hauek, eta guk identifikatutako haurretatik lau programa honetan sartuta daude. Kasu hauek arazo sendoak dituzte, eta DBHko klaseak jarraitzeko arazoak izaten dituzte normalean, ikastola bukatzeko zailtasunak izaten dituztelarik.

Esan bezala, lau haur aztertuko ditugu hemen (haurren izenak aldatuak daude):

1. Xabier (DBH1): atenzio defizita

### **Hezkuntza premia bereziak**

- Erraz distraitzen da eta gauzak ahazten zaizkio

- Jarduera batetik bestera azkar aldatzen da
- Instrukzioak jarraitzeko arazoak ditu
- Asko amesten du
- Eginbeharrak bukatzeko arazoak izaten ditu
- Gauzak galtzeko joera dauka
- Ez da geldirik egoten
- Gelditu gabe hitz egiten du eta irakasleari eteten dio askotan
- Ikusten duen guztiarekin jolasten du
- Ez du pazientziarik
- Emozioak kontrolatzeko arazoak ditu

## 2. Peru (DBH2): arazo motorrak eta ikasketa arazoak:

Ikasle honek arazo psikomotorrak ditu, duela 4 urte igaro zuen gaixotasun bat dela eta. Ebakuntza bat egin behar izan zioten garunean, eta bertan arazo batzuk izan zituzten. Ebakuntzaren ondoren, haur honek ez zuen behatzak ere mugitzeko gaitasunik, baina inguruko eta beraren aurrera egiteko gogo dela eta, gaur egun ibiltzeko eta bere kabuz gauzak egiteko gai da.

Oso haur saiatua da, eta gogo handia du aurrera egiteko eta bere ikaskideekin batera lan egiteko. Heziketa fisikoko saioetan aztertu ahal izan dudanez, bere buruari gogor egiten dio, eta zerbait lortzen ez badu haserretu egiten da. Besteek egiten duten moduan bizi nahi du heziketa fisikoa, eta batzuetan ariketa batzuk egitea ezinezkoa zaionean ez du etsitzen, gehiago saiatzen da.

### **Hezkuntza premia bereziak**

- Gorputza ezagutuz bere buruarekiko irudiaz eta aukeraz jabetu.
- Gorputza ezagutuz gaitasun motorrak landu.
- Ekintza fisikoa modu sortzailean eta zorientasun iturri bezala biziz, emozioen adierazkortasuna eta komunikazioa garatu.
- Gorputz-osasuna landu eta bere burua erregulatu.
- Jolasak eginez espazio-denbora arteko erlazioa antzeman eta ondokoak errespetatuz disfrutatu.

## 3. Eneko (DBH2): asperger sindromea (GAUTENAtik pasata). Kontzentrazio arazoak. Oso mugitua da.

### **Hezkuntza premia bereziak**

- Sozialki baldarra eta beste hurrekin eta helduekin harremanak izatea kostatzen zaio.  
Besteen sentimenduak eta intentzioak ez ditu ulertzen.
- Elkarrizketa baten erritmo normala eramateko zailtasunak ditu. Errutinan eta trantsizioetan ematen diren aldaketek asaldatu egiten dute.
- Hizkuntza eta ulermena literala.
- Soinu, kolore, argi, usai eta zapore altuekin asko asaldatzen da.
- gai edo objektu batzuekin fijazio handia du, eta hauetan jakintsua da.

- bere adineko lagunak egin edo mantentzeko ezintasuna du, baina Perurekin harreman sendoa du.
4. Jose Carlos (DBH4): klasean oso ixila, etxean aldatu egiten da. Mugimendu jarraituak egiten ditu bere gorputzarekin (seaska mugimendua, lasaitasun sentzazioa lortzen du horrela). Sozializatzeko arazoak ditu.

#### **Hezkuntza premia bereziak**

- Sozializatzeko arazoak ditu
- Mugimendu jarraitu ez egokiak egiten ditu
- Pertsonalitate aldaketak ditu, bai saioetan eta bai familiarekiko ere.
- Motrizidade arazoak ditu, batzuetan ez da gai ariketak ongi burutzeko.

Bestalde, HBSP kasuak, ez dira horren larriak izaten, eta ikastolatik bertatik kudeatu ahal izaten dira. Hauek ez dute arazorik izaten ikastola bukatzeko edo klaseak aurrera eramateko, baina laguntza behar izaten dute. Hauek jarraitasun baten beharra dute irakasleen eta tutorearen aldetik, eta laguntza horrekin lortzen dute ikasketekin jarraitzea.

Hauen arazoak ikuspegi ezberdinetatik aztertzen dira:

- Arazo sozialak
- Familia arazoak
- Arazo curricularrak

Sailkapen honetan dauden lau ikasle identifikatu ditut heziketa fisikoko klasean, baina aurrekoekin alderatuz, oso inkluituak daudela esan daiteke, harremanak izateko arazorik ez dutelarik. Horregatik, hauekin ez sartzea erabaki dut, nahiz eta hemen aipatuko ditudan (izenak aldatuta daude):

1. Andoni (DBH2): atentzioa deitu behar izaten du eta ez du uzten klasea aurrera eramaten, autoestima arazoak ditu.
2. Alain (DBH1): medikatuta. Kontzentrazio arazoak. Atentzio defizita.
3. Jesus (DBH1): familia egoera zaila, gurasoak beti lanean. Ikasketekin ez du arazorik. Atentzioa deitu beharra sentitzen du helduekiko.
4. Manex (DBH2): atentzio defizita, baina oso saiatua da.

Ikasle hauei, indartze plan bat egiten zaie, eta honen arabera kurtsoa antolatzen da.

# **ESKU HARTZEA, PROGRAMA PERTSONALIZATUAK**

## **DENBORALIZAZIOA**

Programa hau kurtso batez luzatzea da helburua. Kurtso honetan zehar inklusibitatea sendotzen saiatuko gara, eta programa egokia balitz, ikastolan aurrera eramaten jarraitzea gustatuko litzaidake.

Astean saio bat edo bi izaten ditugu ikasle hauekin, eta beraz, honen arabera prestatu dut programa.

## **HELBURUAK**

- **OROKORRAK**
  - Ezinduen inguruko ezaugarri nagusiak barneratu.
  - Jarduera mota ezberdinek hauen osasunari sortzen dizkion onurak barneratu.
  - Kideak errespetuz tratatu eta talde dinamika hobetu.
- **ESPEZIFIKOAK:**
  - **KONTZEPTUALAK**
    - Ezintasun motak ezagutu.
    - Hauen inklusibitatea lortzeko teknikak ezagutu.
    - Hauei laguntzeko teknikak ezagutu
  - **PROZEDURAZKOAK**
    - Ezinduen tokian jarri
    - Hauen inklusibitatea lortzen saiatu.
  - **JARRERAZKOAK**
    - Sexu diskriminazioak baztertu eta kide guztiak errespetuz tratatu.
    - Ezarritako arauak modu egokian burutu.
    - Proposatutako jardueretan modu aktiboan parte-hartu.
    - Materiala eta ingurunea modu egokian tratatu.
    - Talde dinamikaren eta kolaborazioaren ohituren eta balioen eskumena lortu.

## IRAKASLEAREN JARRERA

Hasteko, irakaslearen jarrera aldatu beharra dago ikasle guztiekiko, guk ere haiekiko harremanak sendotzea eta haiekiko dugun interesa adieraztea oso interesgarria baita inklusiorako bide honetan. Irakasleok ere gure jarrera aldatzen eta moldaketak egiten ikastea beharrezkoa da ikasleek beraien artean ezberdintasunik ez dagoela eta berdinak direla gure aurrean ikusteko. Denak berdinak badira gure aurrean, haien artean ere hala izango dira.

Hau aurrera eramateko, alderdi ezberdinak landu beharko lirateke, gorputz hezkuntzatik at ere lan egin beharko litzatekeelarik, esaterako eremu hauek egokiak izango lirateke:

1. Gelaren kudeaketa
2. Harremanak eraikitzen
3. Ikasketa doitua
4. Gelako giroa
5. Familiarekiko harremana

Eremu hauetatik, guri gehien interesatzen zaiguna harremanak eraikitzen da, izan ere, gorputz hezkuntzan inklusioa bilatzen ari gara, eta horretarako beharrezkoa da harremanak eraiki eta sendotzea

Honen helburua irakasle eta ikasleen artean, elkarren errespetuan eta parte-hartzean oinarrituz, harreman onak eta seguruak ezartzea da. Horretarako, hainbat trebetasun hatu beharko genituzke:

- Ikasleen trebetasunak ezagutu eta ontzat eman.
- Egoeran egoten jakin, adibidez, ikasleekin denbora igaro.
- Ikasleen munduarekiko interesa izan
- Kultur jarrera. Nolakoa da ikasle honen garapena, oraingo belaunaldian. Garai honetan, familia honekin eta gela honetan.

Hau aurrera eramateko oinarrizko pausuak honakoak lirateke:

1. **Izendatzea:** ikasleari zuzentzen garenean, ziurtatu gutxienez behin ikasleari begiratzen diogula (behatu, arreta jarri, berarengandik gertu egon, goraipatu, lagundu...)
2. **Feedback:** ikasleari feedback positibo eta eraikitzailea eman, eta aukera eta portaera positiboetara bideratu.
3. **Urrezko momentua:** ikaslearekiko interesa agertu eta eskolakoak ez diren gauzei buruz hitz egin.
4. **Zurrunburu positiboak:** ikasleei modu positiboan hitz egin beste heldu batzuk edo beste ume batzuk aurrean daudenean.
5. **Onarpen positiboa:** ikasle bat gelaz kanpo aurkitzen duzunean, irribarre egin, eta modu positiboan onartzen duzula adierazi.

6. Arazo uneetan, urrutiko **ikuspuntua hartzen saiatu**, eta entzuteko prest zaudela agertu.
7. Gelan **umorea** erabili.
8. **Giza profila** erabiltzea: ikaslearen gaitasunak, trebeziak, lan edo portaera onak gelan erreferentzia bezala erabiltzea.
9. **Ezabatu eta hutsetik hasi**: egun bakoitza eta ikasgai bakoitza aukera berri bat da.
10. **Ikasleak esan dizkizun gauzak** gogoratzea, errepikatzea eta interesa agertzea.
11. **Irakaslea aurkeztea**: irakasleak berari buruz hitz egitea, bere bizitzaz, esperientziaz...

Bestalde, behin inklusio arazoak dituzten haurrak identifikatuta, hauei aplikatu beharreko programa programa bat sortu dugu. Hemen eskluituak dauden haurrak inkluitzeko jarraitu beharreko pausu batzuk aipatzen ditugu, beren ongizatea bermatuz eta gainerakoen errespetua guztiaren gainetik fokatuta.

## **ESKU HARTZEA**

Nahiz eta inklusioa ez den lan erraza eta gure hezkuntza sisteman txertatzea zaila izaten ari den, interbentzioan ez ezik organizazioan eta eskolaren curriculumean ere neurriak hartzea ezinbestekoa da. Horregatik, estrategia ezberdinak planteatuko ditugu ikasle hauen parte hartzea aktiboa izan dadin Heziketa Fisikoko klaseetan (Rios, 2004):

- Hezkuntza jarrera eta balioetan
- Ikasketa kooperatiboa eta jarduera kooperatiboak
- Maila ezberdinetako irakaskuntza
- Eginbeharren adaptazioa
- Konpetizioko egoeretan konpentsazioa
- Ezintasunak dituzten pertsonekin kirol egokitua partekatzea
- Aholkularitza eta laguntza

## **HEZKUNTZA JARRERA ETA BALIOETAN**

Udarregi Ikastolan “kultura moral propio” bat sortu behar dugu jarreran eta balioetan influentzia izango duena. Hau ikastolako Hezkuntza Proiektua eta Ikastolako Proiektu Curricularraren bidez emango dugu aurrera.

Beraz, jarrera eta balioetan oinarritzen den hezkuntza izango da oinarria gure Heziketa Fisikoko saioetan, ikasle guztiek aniztasuna errespetatu dezaten eta inklusioa komunitate osoa aberasten duen balore bezala barnera dezaten. Ikasle guztiak barneratuta, onartuta eta ziur sentitzea lortu behar dugu (Stainback, Stainback eta Jackson, 1999).

## **IKASKETA KOOPERATIBOA ETA JARDUERA KOOPERATIBOAK**

Gure interbentzio gunean, hau da Heziketa Fisikoan, jarrera eta balioak erakusterako orduan eta ikasle guztien heziketa hobetzeko orduan, baliabide oso egokia da jarduera kooperatiboak erabiltzea.

Hori ikusirik, gure arloan egunerokoak diren praktikak zein diren ikusi eta marko honetara egokitu beharko genituzke. Lehiaketara daramaten jarduerak eskusiora eramaten gaituzte askotan, kooperazioa albo batera utziz. Velázquez Calladok (2004) aztertu zuenez, bakarkako



edo lehiaketako jarduerekin konparatuz, jolas kooperatiboek askoz ere jarrera sozialagoak bultzatzen dituzte. Horregatik da garrantzitsua maiztasun handiagoaren erabiltzea jolas eta jarduera kooperatiboak jarrera eta balio inklusiboak txertatzeko Heziketa Fisikoan.

## MAILA EZBERDINETAKO IRAKASKUNTZA

Maila ezberdinetako irakaskuntzak irakasleak ikasle guztientzat baliagarria den saio bat diseinatzera eramaten gaitu, helburu indibidualak txertatzeko aukera ere ematen digularik egitekoan eta saioko hezkuntza estrategietan. Horrela programak aldatzeko beharrik ez dugu eta ikasle guztiak Heziketa Fisikoko saioaren parte izatea lortzen dugu.

Hori dela eta, helburuak zehazki definiturik egongo dira ikasle bakoitzarentzat, eta ebaluazioa ikasleen ezberdintasunak aintzat harturik egin beharko da. Baina lehen esan dugun bezala, maila ezberdinetako irakaskuntzan ikasle guztiak konpartituko dituzte jarduerak eta edukiak. Saio kontrolatuak alde batera utzi eta ikasleen autonomia eta aukeraketa landu behar ditugu, ikasleei jarduerak aukeratzeko eta asmatzeko aukera emanaz.

## EGINBEHARREN ADAPTAZIOA

Jarduera motorren adptazio prozesuan hiru fase ezberdintzen dira:

- informazioa

zaila da behar bereziak dituzten haur guztien erantzunak orokortzea, izan ere behar bereziak dituzten haur bakoitzak ere hezkuntza behar ezberdinak eskatzen baititu. Gainera bakoitzaren aspektu pertsonalek ere garrantzi handia dute bere ikasketa prozesuan (interesa, motibazioa, aurretiko esperientziak...).

Honi, beste aldagai batzuk gehitu behar zaizkio:

- inguru sozio-hezitzailea eta familiarra
- independentzia maila, segurtasunarena eta autokonfiantza
- ezgaitasunaren aurrean duen jarrera eta autozeptazioa
- taldean integratzeko duen gaitasuna eta harreman sozialak izateko duena
- ezgaitasun mota eta honen gradua
- ezintasuna agertzen zaion unea
- beste ezgaitasun baten azalera
- patologia bat badu, honen erritmoa (progresiboa bada edo ez)
- garapen motorren alterazio maila

- laguntza teknikoak edota protesiak
- Jardueraren analisia
 

Hezkuntza beharrak detektatuak eta aztertuak daudenean, hurrengo pausua egokiak diren jarduerak proposatzea da behar horiekiko. Horretarako jarduera ongi analizatu behar dugu ikasle bakoitzarekiko.
- Jardueraren adaptazioa eta honen jarraipena
 

Jardueraren ezaugarriak ondo aztertu ondoren, irakaslearen interbentzioa hiru zatitan banatzen da:

- Adaptazio metodologikoak
  - Komunikazio sistemak normalizatzea saioetan, behar bereziak dituzten hurrekin komunikazioa errazteko.
  - Hezkuntza ikasleen ulermen mailara egokitzea (ahozkoa, idatzia, ikusmenekoa, gestuala...)
  - Jarduera alternatiboak proposatzea ikasle guztien hezkuntza beharretara egokitzeko
  - Esperientzia, gogoeta eta espresioa errazten duten teknikak eta estrategiak erabiltzea.
  - Zeharkako ikasketa garatzen duen teknikak erabiltzea.
  - Estrategia eta jarduera motibatzaileak erabiltzea, ikasleen interesa handiagotzeko.
  - Atentzioa fokalizatzeko teknikak erabili, hau da, globaletik analitikora azaldu, zehaztasunetik abstrakziora...
  - Autoikasketa bultzatu: ikasketa autonomia indibidualizazioa eta sormena erabiltzea bultzatuz jarduera motorretan.
  - Ikasketa talde kooperatiboak bultzatu.

- Inguruaren eta materialaren adaptazioak
 

Materiala eta instalakuntzak faktore garrantzitsuak dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren egokitzapenean. Ruiz Sánchezek (1994) honako egokitzapenak proposatzen ditu:

Materiala: mugikortasunaren potentziatzaileak, informatiboa izatea, manipulatu daitekeena, motibatzailea, protekzioa duena.

Instalakuntzak: barrera arkitektonikorik gabea, oztoporik gabea, irristakorra ez dena, lurzorua mingarria ez duena, ondo mugatua, aldapa handirik ez duena.

○ Jardueraren adaptazioa

Ikaslearen zein jardueraren ezaugarriak ondo ezagutzen baditugu, ikaslearen beharretara ongi egokitzen den jarduera bat proposatzeko prest gaude.

Honako ezaugarriak hartu beharko ditugu kontuan jarduerak proposatzeko:

- Zailtasun gradu ezberdinak dituzten jarduerak proposatzea.
- Gai jakin bat jorratzeko jarduera ezberdinak proposatzen saiatu.
- Exekuzio eta espresio aukera ezberdinak ematen dituzten jarduerak proposatu.
- Talde haundietan eta txikietan egiteko jarduerak tartekatu, bakarkakoez gain.
- Aukeraketa librea duten jarduerak proposatu.
- Ikasleari erronka bat suposatuko dioen jarduerak sartu, parte-hartze aktiboa eta efektiboa sortuz.

## KONPETIZIO EGOERETAN KONPENTSAZIOA

Hala eta guztiz ere, behar bereziak dituzten haurren parte-hartze aktiboa lortzea ez da hain erraza, jarduera hauek taldekideekin egiteak bere zailtasunak baititu kasu batzuetan. Beraz, positiboak zein negatiboak diren hainbat erlazio emango dira taldean, eta honek bere parte-hartzean ondorioak eragingo ditu, honekin bere ikasteko aukera eta nahia ere aldatu egingo delarik. Beharrezkoa da argi edukitzea jarduera fisikoko saioek ahalmen kontrajarriak dituztela. Alde batetik saio sozializatzaileena eta inklusiboena izan daiteke eta bestetik segregatzaileagoa izatea lor dezakegu.

Taldea segregatzea erraza da lehiaketa sartzen denean tartean. Lehen esan bezala oso egokiak dira jarduera kooperatiboak baina argi dago Gorputz Heziketako saioetan lehiaketa egoerak sortuko direla, jarduera hauek ere hainbat balore hezitzaile baitituzte eta beharrezkoak baitira hein handi batean. Egoera hauek gu aztertzen ari garen mailetan oso ohikoak dira, egoera kodifikatuagoetan sartzen baikara eta kirolaren hastapenarekin hasten

baikara. Honen aurrean egin dezakeguna, behar bereziak dituen haurrari lehiaketan besteek bezala parte hartzeko behar dituen aldagaiak ematea da (Rios, 2004):

- Beharrezko aldagaiak bakarrik eman jolasari
- Ez da jolas berriak egitea, beti egin ohi diren jolasak egitea komeni da kultur ingurunearen arabera.
- Behar bereziak dituzten hurrek jolaseko edozein rol aurrera eramateko gai izan behar dute.
- Oreka bat bilatu behar bereziak dituen ikasleari egiten zaizkion adaptazio eta taldeari egiten zaizkion adaptazioen artean.
- Baita ere, oreka bilatu behar da, mugekin parte-hartzea eta konpentsazioarekin parte-hartzearen artean.

Irakaslearen erronka izango da rol guztietan ikasle guztien parte-hartzea lortzea, beren ezaugarriak direnak izanik. Horretarako beharrezkoa izango da ikasle guztien sentsibilizazioa, hauek ikus dezaten adaptazioak arruntak direla egoera sozial guztien aurrean berdintasuna izan dezagun. Esan daiteke, adaptazio hauek ulertzen hezten den haurrak, etorkizunean bere inguruan dauden ezberdintasunen inguruan errespetua izaten lagunduko diola.

Erronketan ikus daiteke lehiaketa jardueretan adaptazioak egitearen jatorria. Adibidez lasterketa batean lehiakideari metro batzuetako bentaja ematean adaptazio bat ezartzen dugu. Erronkan, badakigu errazagoa daukagula irabazteko, baina hala ere irabazten saiatuko gara. Indarrak neurtzeko era bat da, norberaren gaitasunei egokituta. Adibidez:

1. Abiadura jolas batean, distantziak aldatu genitzake, behar bereziak dituzten hurrei laburragoak ezarriz
2. Etxeak dauden harrapaketa jolasetan, iristeko errazagoak diren hainbat etxe jarri behar bereziak dituen haurrari zailagoa bazaio ohikoetara iristea.
3. Botere bereziak eman (bizitzak...)

### Ezintasunak dituzten pertsonekin kirol egokitua partekatzea

Ezintasunak dituzten pertsonentzat egokitutako kirolari dagokionez, ezinbestekoa da ikastolan erabil ditzakegun kirolak ezagutzea. Horrela, behar bereziak dituen haurrak ezin baditu saioan burutu beharreko jarduerak aurrera eraman, talde txiki bat osatu eta kirol

egokitu bat praktikatzea guztiek egokia da. Taldekideek ezintasuna simulatu beharko dute beharrezkoa bada eta beste kirol modalitate batzuk ikasteko aukera izango dute. Adibidez boleibola lantzen ari bagara eta gure ikasle batek zailtasunak baditu koordinatzeko, boleibol eseria praktika dezakegu talde txiki batean.

### Aholkularitza eta laguntza

Marko inklusibo bat lortzeko Heziketa Fisikoko saioetan ezinbestekoa da espezialisten laguntza alboan izatea beti (ikastola bertako orientatzailea edota ikastolaz kanpoko psikopedagoak...). Formakuntza jarraitu bat egitea ere beharrezkoa da hezkuntza erantzun egokia eman dezagun momentu oro, dibertsitatean irakats dezagun.

Laguntzen dagokienez, ikaslearen dependentzia moztu behar dugu bere erreferentzia den helduarekiko. Ikaskideak formatzeko estrategiak bilatu behar dira, hauek izan daitezten behar bereziak dituen kideari laguntza ematen diotenak. Gainera, beharrezkoa da behar bereziak dituen haurra behar duenean laguntza eskatzeko gai izatea, bere ezintasunak onartu eta bere autonomian aurrera egin dezan.

## **EBALUAZIOA**

Ebaluazio jarraia erabiliko dugu, behaketa sistematizatu batean oinarrituz. Horretarako, hainbat ebaluazio-tresna erabiliko ditugu:

- Talde lanak edo proiektuak: guztien parte hartzea bilatu behar dugu.
- Froga praktikoak: behar bereziak dituztenei beharrezko aldagaiak emango zaizkie.
- Eguneroko koadernoak
- Ahozko adierazpenak, gorputz adierazpenak
- Gelako behaketa
  - Jarrera: arloarekikoa: gelan egiten dugun lana burutzea, parte hartzea, materiala zaintzea.
  - Gelakoa: arreta, interesa, hobetzeko interesa, talde lana, inizatiba, harremanak, emozioak kudeatzeko gaitasuna, bere buruarekiko duen ezagutza.

Kalifikazioen balio portzentuala honakoa izango da:

- Gelako behaketa (banakakoa nahiz taldekakoa) %70
- Froga praktikoak %20
- Eguneroko koadernoak %10

Arloa gaitzeko %50 gaitu beharko da. Gainera, gaitzeko, arropa egokia ekartzea eta eguneroko lanak ardura minimoz egitea derrigorrezkoa izango da.

## ONDORIOAK

Proiektu honetan lan egin ondoren, hainbat ondorio atera ditzakegu gaur egungo inklusio mailaren eta etorkizunerako proposatzen diren proiektuen inguruan:

Hasteko, esan beharra dago baztertuak dauden haurren egoera gogorrek bukatzeko hezkuntza dugun erremintarik garrantzitsuen delako. Hezkuntzaren bitartez haur hauen inklusioa lor dezakegu, eta beren alderik produktibo eta lagunkoiak kanpora atera. Haur bat bazterturik dagoenean ez da eginbeharrak mudu egoki batean egiteko gai, eta ez dizkigu bere gaitasunak adierazten. Baina haur honi besteekin erlazionatzen laguntzen badiogu, bere barnean duen guztia adieraztea ere errazagoa egingo zaio.

Gainera, argi izan behar dugu gainerako haurrek ere beharra dutela ikasteko. Denak ez garela berdinak ikasi behar dute, eta ezberdintasun horrek egiten duela gizartea horren anitza eta polita. Ikaskideek hau ulertzen badute guztia errazagoa izango da programa hauek eskoletan txertatzerako orduan.

Aipatzekoa da, ikastola honetan ez dela inklusio arazo larririk egon, ikasle guztiak oso pertzeptiboak izan dira eta laguntzeko prest egon dira une oro. Usurbil herri txikia izanik denak ezagutzen dira, eta denek ezagutzen dute elkarren egoera, horrek asko laguntzen duelarik. Herri handiago batean inklusio arazo larriagoak egon daitezkeela pentsa daiteke.

Beste alde batetik, programa hau aurrera eman ondoren, esan dezakegu haur guztiak inkluitzea lor daitezkeela, nahiz eta prozesua oso konplikatu izan eta lan handia eskatu. Gorputz hezkuntzak gertutasun handia eskatzen du irakasle-haur eta ikaskideen artean eta horrek asko lagundu gaitu guztiak batzea lortzeko.

Azkenik, esan dezakegu gorputz hezkuntzaren bidez haurren elkarlana lortzen dugula, lan baldintza kooperatibo batzuk ezartzen badizkiegu haurrei, guztien bateratzea lortzen dugularik. Hala ere, gorputz hezkuntzako saioretan lortzen duguna beste saioretara eramatea da lortu behar dena, eta hau beste pausu batzuk emanaz lortzea errazagoa izango da etorkizunean.

## BIBLIOGRAFIA

Interneten ikusia:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/eu/contenidos/informacion/dif7/eu\\_2082/f7\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/eu/contenidos/informacion/dif7/eu_2082/f7_e.html)

Interneten ikusia: [www.udarregi.eus/es](http://www.udarregi.eus/es)

Interneten ikusia: [www.usurbil.net/es](http://www.usurbil.net/es)

Areta, B. M., Mendizabal, A., & Sostoa, V. P. (2014). Eskola-porrotetik lan-mundura. *Tantak*, 24(1).

Bará-Jiménez, S., Vicuña, P., Pineda, D. A., & Henao, G. C. (2003). Perfiles neuropsicológicos y conductuales de niños con trastorno por déficit de atención/hiperactividad de Cali, Colombia. *Revista de neurología*, 37(7), 608-615.

Booth, T., Ainscow, M., & Black-Hawkins, K. (2000). Guía para la evaluación y mejora de la educación inclusiva. Desarrollando el.

Cardo, E., & Servera-Barceló, M. (2005). Prevalencia del trastorno de déficit de atención e hiperactividad. *Revista de Neurología*, 40(1), S11-S15.

Díez, A. M., & Latas, Á. P. (2006). Criterios para la formación permanente del profesorado en el marco de la educación inclusiva. *Revista de educación*, 339, 517-539.

Escudero Muñoz, J. M. (2011). Fracaso escolar, exclusión educativa:¿ De qué se excluye y cómo?.

Ferguson, D., Jeanchild, L. (1999). Cómo poner en práctica las decisiones curriculares. En Stainback, S., Stainback, W. *Aulas inclusivas* (pp.179-194). Madrid: Narcea.

Fernández, M., Anguera, M., Navarro, V., Jiménez, F., & Rosa Sánchez, C. (2012). Sistema de codificación y análisis de la calidad del dato para una intervención inclusiva en Educación Física. In *Revista de psicología del deporte* (Vol. 21, pp. 0067-73).

Gomendio, M. (2007). El profesor de educación física en la escuela inclusiva vasca: acción de los centros de formación (garatu) y apoyo (berritzegune). *Málaga*, 15, 17.

Porter, G. (2003). Puesta en práctica de la educación inclusiva. In Ponencia para la Conferencia sobre Educación Especial celebrada en San Sebastián, en septiembre de.

Rada, T. S. (2008). Dar la voz en la investigación inclusiva. Debates sobre inclusión y exclusión desde un enfoque biográfico-narrativo. *REICE: Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 6(2), 157-171.

Rada, T. S., & Latas, A. P. 1. Para empezar, algunas reflexiones relativas a la investigación sobre la exclusión y la inclusión en jóvenes.



Ríos, M. (2004). La Educación Física y la inclusión del alumnado con discapacidad. En *Actas del III Congreso Vasco del Deporte*. Vitoria: Diputación Foral de Álava.

Ruiz Sánchez, P (1994). *La adecuación curricular individual en Educación Física*. Apuntes, n.º 38, 1994, 41-50.

Stainback, S., Stainback, W., et Jackson, H.J. (1999). *Hacia las aulas inclusivas*. (pp. 21-35). Madrid: Narcea.

Velázquez Callado, C. (2004). Las actividades físicas cooperativas. Una propuesta para la formación en valores a través de la educación física en las escuelas de educación básica. México: Secretaría de Educación Física.